

HIRIGINTZA FITXA. - 5 SO. IKASTETXEA

DEBA ALDEA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Hirigintzako esku-hartze alderdi hau etena da, bi gunere bereizirik osatua baitago: alde batetik, haur eta lehen hezkuntza Santa Maria elizaren ondoan, eta bestetik, irakaskuntza ertainak Ostolaza eskolen inguruan. Kiroldegiarekin (6 SO) batera komunitate multzo bat eratzen dute.

1.1. GARAPENEN PLANEAMENDUA.

5 SO esparrurako ez da planeamenduko inolako figurarik ez idatzi ez onartu. Soil-soilik, berriki dauden zuzkidurak handitu egin dira, bai haur hezkuntzan bai Ostolazan gauzatze proiektu bana garatuz.

1.2. HIRI EGITURA.

Eskola multzoa finkatu denez, gunere bakoitzean kirol pistak ezarrita, eta sistema orokorra handitu eta hiri alderdiaren egitura orokorrean txertatu delarik, esparruaren tamaina eta ezaugarriak nahikoa dira eskola erabilerarako nahiz eskola ordutik kanpo aisia eta olgetarako. Handitze horrekin, halaber, udaleko kirol premiei erantzun nahi zaie.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 28.564 m²

2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA: Hiritarra.
- 2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA: Komunitatearen ekipamenduko zona: irakaskuntza (11. artikulua: G.2).
- 2.3. ALDERDIEN MUGAKETA: Hiri Antolaketako Arau hauen ondorioetarako, hirigintzako esku-hartze alderdi hau hirigintza alderdi bakar bat bezala eratu da, bi azpizonez.
- | | |
|--------------------------|-----------------------|
| Eskolakoa, haurrena..... | 717 m ² |
| Eskolakoa, Ostolaza..... | 27.205 m ² |

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Behin sistema orokorrari eman beharreko erabilera (eskolakoa eta aire zabaleko kirolekoa) zehaztu ondoren, esparrua garatu eta gauzatze aldera eskolako premiei aurre egiteko beharrezkoa den lurzoru erreserba baliatu beharko da. Esparrua handitzeko lurzoru horretan bertan hartu beharko dira ikastetxearekin eta kiroldegiarekin bateragarriak diren erabilerak.

Are gehiago, lurpeko edota sestra gaineko aparkaleku publikoak ezartzeko aukera ere bere egin beharko du.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA. Komunitatearen ekipamenduko sistema orokorra: eskola ekipamendua.

4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

4.1. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Etorkizunean ezarri nahi diren zuzkidurak garatzeko beharrezkoak diren eraikuntzak ezartzea baimenduko da.

Eraikuntza. Handitzearen ezaugarriak dagokion oinarritzko eta gauzapeneko proiektuan finkatuko dira.

| | |
|------------------|--|
| Erabilera | Erregimen orokorra, 12. artikulua araberera. Zehaztapenak: erabilera baimenduak: eskola ekipamendua. Kirol ekipamendua. Kirol parkea. Lurpeko edota sestra gaineko aparkaleku publikoak. Espazio libreak: haurrentzako jolaslekuak, lorategiak. |
| | Erabilera debekatuak: Etxebizitza. Industrialak. |

4.2. JABARIA

Jabari publikoa (gainerakoa).
Handitzea egiteko lurzoru erreserba jabari publikokoa bihurtu beharko da.

4.3. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuetan finkatuko dira.

4.4. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Xehetasunezko azterketa.
Hiritartze proiektua.
Eraikuntza proiektua.

4.5. JARDUKETA SISTEMA.

Desjabetzea.